

# BEASAINDIK



ARGITARATZAILEA: BEASAINGO UDALA • LG SS-00403-2016

AURREKONTUAK 2026

## Herritarren ongizatea eta Beasainen etorkizuna eraikitzeko tresna

**Etxebizitza publikoa, ongizatea eta irisgarritasuna ardatz**

*Aprobados los presupuestos de 2026  
con un objetivo claro, mejorar la calidad  
de vida de los y las beasaindarras*



Beasain Kirol Elkarteko  
lehen taldea 2. RFEra  
lortutako igoeragatik,  
Urteko Kirol Sari Nagusia

06



Nuevos aparcamientos  
seguros para bicicletas  
en Barrendain

07



★  
Zuen  
alkatea

Leire Artola Ugalde  
BEASAINGO ALKATEA

## Ongizatea eta etorkizuna eraikitzeko tresna

2026ko udal aurrekontua onartu berri dugu, legealdi honetan hartu dugun norabideari jarraipena ematen dion proiektua. 23,4 milioi euroko aurrekontua da, eta helburu argi bati erantzuten dio: Beasain bizi-kalitate handiko herria izaten jarraitzea, etxebizitza eskuragarriagoarekin, ongizate sozial indartsuarekin eta garapen jasangarriagoarekin. Aurrekontu honen lehenengo lehentasuna etxebizitza da. Gazteen eta familien beharrak erdigunean jarri ditugu eta, horregatik, alokairu publikoko etxebizitza berriak sustatzeko lurraz erosteko 400.000 euro bideratuko ditugu. Era berean, etxebizitza hutsen merkaturatzea erraztuko duten laguntzak eta gazteen emantzipaziorako dirulaguntzak mantenduko dira, aukera berriak sortzeko eta etxebizitza duina benetako eskubide bihurtzeko. Bigarren ardatza ongizate soziala da. Etkez etxeko laguntza zerbitzuari bideratzen zaion kopurua %44 handitzea erabaki dugu, herritarrei arreta pertsonalizatu eta hurbila eskaintzeko.

### Herramienta para construir bienestar y futuro

El presupuesto municipal de 2026 ya ha sido aprobado, con un total de 23,4 millones de euros y con un objetivo claro: mantener a Beasain como un lugar con calidad de vida, priorizando la vivienda accesible, el bienestar social y la sostenibilidad. La vivienda es la primera prioridad. Destinaremos 400.000 euros a la compra de suelo para vivienda pública en alquiler y mantendremos las ayudas a la emancipación juvenil y a la puesta en uso de viviendas vacías. También reforzamos las políticas sociales: la partida destinada al servicio de

lkastetxeekin elkarlanean, ongizate emozionalerako programak martxan jarriko ditugu, eta Zaintza Mahaia sortuko dugu, adinekoei, mendekotasuna dutenei eta familiei erantzun komunitario eta koordinatua emateko. Era berean, jasangarritasuna eta ingurumenaren zaintza sendotuko ditugu. Naturguneak eta herri-ingurunea zaintzen jarraituko dugu, babesgune klimatikoak sortuz eta mugikortasun jasangarria sustatuz. Irisgarritasun Plana eguneratuko dugu, eta espazio publiko atsegín eta inklusiboak diseinatuko dira, herritarren parte-hartzearekin. Tokiko ekonomia eta enplegua sustatzea ere funtsezkoa da guretzat. Prestakuntza eta enplegurako programak indartuko ditugu, merkataritza txikia babestuko dugu eta ekonomia zirkularra bultzatzen duten ekimenak garatuko dira. Aurrekontu hau ez da zenbaki hutsa: tresna da, herritarren ongizatea eta Beasainen etorkizuna eraikitzeko. Eskerrik asko zuen konfiantzagatik. Guztion artean ari gara Beasain hobea egiten.

ayuda a domicilio aumenta un 44%, se pone en marcha la Mesa de Cuidados y desarrollamos programas de bienestar emocional con los centros educativos. La sostenibilidad es otro eje clave: protección del entorno, movilidad compartida, accesibilidad y espacios públicos más inclusivos. Impulsamos el empleo y la economía local con programas de formación, apoyo al comercio y proyectos de economía circular. Un presupuesto responsable y orientado al bienestar de las personas.



## 690 nuevas viviendas en el horizonte

**E**l Ayuntamiento de Beasain ha aprobado los presupuestos de 2026, con un total de 23.413.825 euros, centrados en la vivienda pública, políticas sociales y accesibilidad universal.

Se destinarán 400.000€ para la compra de terrenos con la vista puesta en Ugartemendi y Berneño. En el primero ámbito, el Plan General prevé la construcción de 90 viviendas públicas de alquiler mientras que en Berneño, se proyectan 600 viviendas, de las que 270 serán de protección pública. Por otro lado, se mantendrán las ayudas a la emancipación para jóvenes de 18 a 35 años.

En bienestar social, se incrementa un 10% el presupuesto, destacando un aumento del 44% en los servicios de ayuda a domicilio y la creación de una Mesa de Cuidados para coordinar los servicios sociales.

Además, se iniciará el Plan Integral de Accesibilidad Universal, se comenzarán las obras de un ascensor entre Mateo Mujika y Arantzazu, y se llevará a cabo un proceso participativo para la remodelación del parque Arana Gaiztarro, un espacio que contará con un ascensor público para unir Kale Nagusia y Esteban Lasa kalea.



# Etxebizitza publikoa, politika sozialak eta irisgarritasun unibertsala dira 2026ko aurrekontuen muinak



**690 etxebizitza berri jomugan:** Lursailen salerosketa; Ugartemendin alokairu publikorako 90 etxebizitza eta Bernedoenean 600 etxebizitza garatzeko, horietatik 270 babes publikodunak.



**Emancipación juvenil:** ayudas para jóvenes de 18 a 35 años, entre 100 y 250 euros mensuales.



**%44eko gorakada etxez-etxeko laguntza zerbitzuan,** zerbitzuen hobekuntza eta zabalpena.



**Programas de bienestar emocional:** fomentar el bienestar y la participación de las y los jóvenes en colaboración con los centros escolares.



**Igogailuaren obrak** Mateo Mujika-Arantzazu kaleen artean.



**Remodelación del parque de Arana Gaiztarro:** se pondrá en marcha un proceso participativo con la propuesta de incorporar un ascensor público que conecte Kale Nagusia con Esteban Lasa kalea..

**B**easaingo 2026ko Udal Aurrekontuak onartu dira, 23.413.825 euroko zenbatekoarekin. Aurrekontu hauek, udalerriko etxebizitza publikoaren, politika sozialen eta irisgarritasun unibertsalaren aldeko apustu sendoa egiten dute, udalerriaren etorkizuneko garapenaren oinarri sendoak ezarriz.

Etxebizitza publikoaren arloan, 400.000€-ko partida bat aurreikusi da lursailen salerosketarako, Ugartemendi eta Bernedoeneako eremuetan. Ugartemendin alokairuko 90 etxebizitza publiko sustatzeko asmoa dago, eta Bernedoenean, Plan Orokorrak hiri zabalkunde berri bat proposatzen du, guztira 600 etxebizitza berriekin, horietatik 270 babes publikodunak. Era berean, gazteen emantzipazioa bultzatzeko laguntzak mantenduko dira, eta 18-35 urte bitarteko gazteek hileko 100 eta 250 euro artean jasotzeko aukera izango dute, hau da, beren bizitza independentea hasteko laguntza praktikoa.

Ongizatearen arloan, %10eko igogera orokorra izan du sailak, eta

etxez-etxeko laguntza zerbitzuaren %44eko gorakada nabarmendu da. Zerbitzuaren hobekuntza eta etxez-etxeko laguntzaren zabalpenak herritarren beharrei erantzuten jarraitzea du helburu. Horrez gain, Zaintza Mahaiaren sorrera aurreikusten da, arreta eta mendekotasunari buruzko gizarte-zerbitzuak koordinatzeko, eta ikastetxeekin elkarlanean, gazteen ongizate emozionala eta parte-hartzea sustatzeko programak garatuko dira.

Irisgarritasunari dagokionez, lehen aldiz, Irisgarritasun Unibertsaleko Plan Integrala abian jarriko da Beasainen, udalerri mailan dauden irisgarritasun-beharrak diagnostikatzeko eta proiektu desberdinak planifikatzeko helburuarekin. Hau da, espazio publikoak eta eraikinak guztientzako irisgarri egitea, eta horretarako hainbat proiektu izango dira martxan. Halaber, Mateo Mujika-Arantzazu kaleen arteko igogailuaren obrak hasiko dira, eta Arana Gaiztarro parkearen birmoldaketa egiteko parte-hartze prozesu bat jarriko da martxan, igogailu publiko bat txertatzeko proposamenarekin.

# AURREKONTUAK

## Inbertsioak

Kale eta orokorrean espazio publikoen birgaitzea,  
eraikin publiko berriak, lursailen erosketa, irisgarritasuna...

# 1.750.190,00 €

Etxebizitza gehiago: lursailen erosketarako  
400.000 euro, Ugartemendi, Bernedoenea... **%23.3**


Inbertsioak Musika Eskolan, Antzizar Kirol-  
degian, Murumendi eskolan eta Alkartasuna  
lizeoan **%15.9**

Kalitatezko espazio publikoa: Nelkolalde  
kaleko plaza berritzea, Foru kaleko espa-  
loien erabaerritzea, Ezkiagako haur parkea  
estaltzeko proiektua **%19,3**


Irisgarritasuna: lehen Irisgarritasun  
Unibertsalerako Plan integrala, Mateo  
Mujika-Arantzazu kaleen arteko igogailua, **%32.4**  
Arana Gaiztarro parkeko proiektua.

Mugikortasun jasangarrirako zerbitzuak: Car  
Sharing zerbitzua (Guppy), Carpooling  
Partecar zerbitzua, Tori! bizikleta bidezko  
banaketa jasangarri zerbitzua... **%3.93**

Ingurumenaren zaintza **%5.1**



## Baliabide eta zerbitzuak



Kale garbiketa, lorazaintza, argiteria... **%38.9**

Ongizate zerbitzuak **%17.9**

Antzizar kiroldegia **%16.7**

Kultura **%8.4**


Bide segurtasuna, mugikortasuna, trafikoa... **%4.4**

Besteak **%13.7**




## Elkartegintza, dirulaguntzak, erakunde supramunizipalak

|                                                 |               |
|-------------------------------------------------|---------------|
| Ongizatea sustatzen duten elkarteak             | <b>%14.85</b> |
| Kirol elkarteak                                 | <b>%11.6</b>  |
| Goieki eta erakunde supramunizipalak            | <b>%7.97</b>  |
| Kultura, Euskara eta berdintasunerako elkarteak | <b>%16.93</b> |
| Sasieta mankomunitatea                          | <b>%39.9</b>  |
| Besteak                                         | <b>%8.75</b>  |



## Etkez etxeko laguntza zerbitzua

**1.154.000€** 2025 — **1.678.000€** 2026 — **+%44**





## Beasain Kirol Sariak: hamargarren edizio borobila

Igartzako jauregian ospatutako galak borobiltzat eman zuen Beasain Kirol Sarien hamargarren edizioa. Aurrez jakinarazitako saridunek jaso zituzten aipamen eta aitortzak, eta ekitaldiko une nagusian jakinarazi zen Urteko Sari Nagusia: Beasain Kirol Elkarteko lehen taldea 2. RFEFra lortutako igoeragatik.

Beasaingo Udalak banatu zituen Ohorezko Beasain Saria eta kirol Ibilbideari Saria ere. Lehenengo aitortza Ehunmilak probaren antolakuntzari eman zitzaion, urte luzez egindako lan eskergagatik. Kirol ibilbideari dagokion saria Txema Aguirre fisioterapeutarentzat izan zen, kirolariei eta herritarrei osasun arloan 35 urtetik gora eskainitako dedikazioagatik.

### Beasain Kirol Sariak décima edición

La gala celebrada en el palacio de Igartzza cerró la décima edición de Beasain Kirol Sariak, donde se entregaron los premios y menciones ya anunciadas y se dio a conocer el gran premio anual que recayó en el primer equipo de Beasain Kirol Elkartea por su ascenso a 2ª RFEF.

El Ayuntamiento otorgó además el premio Beasain de Honor a la organización de Ehunmilak por su labor continuada, y el premio a la trayectoria deportiva a Txema Aguirre, fisioterapeuta por su dedicación en la mejora de la salud de los deportistas durante más de 35 años.

### 2025eko saritu nagusiak

- **Emakumezko kirolari edo taldearen saria:**  
BKLko neska Beteranoak (Saskibaloia)
- **Gizonezko kirolari edo taldearen saria:**  
Beasain K.E. – 2 RFEFera igoera (Futbola)
- **Urteko kirol jarduera:**  
L. San Silbestre Krosa (Beti Bizi Elkartea)
- **Erakunde babeslea:** AMPO
- **2025eko Sari Nagusia:**  
Beasain K.E. – 2 RFEFera igoera (Futbola)

### 2025eko aipamen bereziak

- Berdintasun Txapelketa – Emakumezkoen futbola (Goierrri Gorri)
- XV. San Silbestre Txiki Solidarioa (Batzokia Kultur Elkartea)
- Aritz Aldasoro (Futbolaria)
- Beñat Azketa (Pilotaria)
- Manex Gibelalde (Futbolaria)
- Koldo Galarreta (Lasterkaria)
- Maitane Garro (Futbolaria)
- Naxara Odriozola (Txirrindularia)
- Maren Higuero (Atletismoa)

#### GALAREN EMANALDIA



#### GALAREN GALERIA



## Mariarats arroan informazio-panel berria

Beasain eta Ordiziako Udalek Mariarats arroan informazio-panel berria instalatu dute, naturgune honen balioa zabaltzeko eta herritarrek ingurunearen kontserbazioan inplikatzeko helburuarekin. Kartela Aranzadi Zientzia Elkartearekin egindako ikerketen emaitzen ondorioz sortu da, eta aroko elementu natural esanguratsuak, landarediaren ezaugarriak eta berreskurapen ekintzak jasotzen ditu.

Panela ibaiaren ertzean kokatu da, bisitariak Mariarats arroaren egoera eta berezitasunak zuzenean eza-gutzeko. Azken hilabeteetan egindako lanek agerian utzi dute biodibertsitate handiko eremua dela, baina basogintza intentsiboak eta habitat artifizialek mehatxatuta dagoela. Horregatik, udalek ingurune naturala babestu eta leheneratzeko neurriak ezarri dituzte, eta panelaren instalazioa sentsibilizazio lan horren lehen urratsetako bat da.

Ekimen honen bidez, Beasain eta Ordiziako udalek Mariarats arroaren berreskurapenean aurrera egin nahi dute, tokiko natura ezagutarazi, eta herritarren parte-hartzea bultzatuz. Panela 2025ean aurreikusitako dibulgazio-ekintzen barruan kokatzen da, eta proiektuaren garrantzia eta etorkizunerako erronkak azaltzen ditu.

### Nuevo panel informativo en la cuenca de Mariarats

Los Ayuntamientos de Beasain y Ordizia han instalado un panel informativo en el entorno del arroyo Mariarats con el objetivo de dar a conocer su valor natural y promover la sensibilización ciudadana. El



cartel recoge los principales elementos naturales del área, así como las primeras acciones de recuperación definidas junto a la Sociedad de Ciencias Aranzadi.

La instalación forma parte de las acciones divulgativas previstas para 2025 y responde a la necesidad de proteger un espacio de gran biodiversidad, actualmente amenazado por la presión forestal y la pérdida de hábitats. Con este panel, ambos ayuntamientos buscan implicar a la ciudadanía en la conservación y recuperación de este entorno natural compartido.



### Bizikletentzako aparkaleku seguruak Barrendainen

Utzi lasai zure bizikleta babesean. Barrendainen kokatu diren bi bizikleta aparkalekuak toki seguruak dira. Bakoitzean 6 bizikletentzako lekua dago eta itxiak dira. Aplikazio baten bidez kudeatzen da eta lehen 10 orduak doan dira.

### Aparcamientos seguros para bicicletas en Barrendain

Deja tu bicicleta a salvo. Los dos aparcamientos de bicicletas que se han instalado en Barrendain son lugares seguros. Cada una de ellas tiene capacidad para 6 bicicletas y son cerradas. El parking se gestiona a través de una aplicación y las primeras 10 horas es gratuito.

## APLIKAZIOA



GOOGLE PLAY



APPSTORE



# 2026ko Zergen Egutegia | Calendario Fiscal 2026



2026. urterako aurreikusi diren  
borondatezko kobrantza-epeak

Helbideratutako ordainagirien  
kobrantza-eguna

## URTEAN BEHIN ORDAINDU BEHARREKO ZERGAK ETA TASAK • TRIBUTOS DE PERIODICIDAD ANUAL

|                                                                                         |                         |                                                                       |
|-----------------------------------------------------------------------------------------|-------------------------|-----------------------------------------------------------------------|
| Egoiliarrentzako Aparkalekua<br>Aparcamiento para residente                             | 2026.03.01 - 2026.04.30 | Borondatezko epearen azken eguna<br>Último día del periodo voluntario |
| Trakzio Mekanikodun ibilgailuen Zerga<br>Impuesto sobre vehículos de Tracción Mecánica  | 2026.03.01 - 2026.04.30 | Borondatezko epearen azken eguna<br>Último día del periodo voluntario |
| Ondasun Higiezinaren gaineko Zerga (OHZ)<br>Impuesto sobre Bienes Inmuebles (IBI)       | 2026.02.01 - 2026.03.31 | Borondatezko epearen azken eguna<br>Último día del periodo voluntario |
| Ibilgailuak finca hiritarretan sartzea<br>Entrada de vehículos en fincas urbanas        | 2026.05.15 - 2026.06.30 | Borondatezko epearen azken eguna<br>Último día del periodo voluntario |
| Ibilgailuen geraldak eta kokagunea<br>Parada y situación de vehículos                   | 2026.09.01 - 2026.10.31 | Borondatezko epearen azken eguna<br>Último día del periodo voluntario |
| Jarduera Ekonomikoen gaineko Zerga (JEZ)<br>Impuesto sobre Actividades Económicas (IAE) | 2026.09.01 - 2026.10.31 | Borondatezko epearen azken eguna<br>Último día del periodo voluntario |
| Kioskoak herri-bidean<br>Quioscos en la vía pública                                     | 2026.10.01 - 2026.11.10 | Borondatezko epearen azken eguna<br>Último día del periodo voluntario |

## HIRU HILABETERIK BEHIN ORDAINDU BEHARREKO TASAK • TRIBUTOS DE PERIODICIDAD TRIMESTRAL

|                                                |                         |                                                                       |
|------------------------------------------------|-------------------------|-----------------------------------------------------------------------|
| Azoka 1. hiruhilekoa<br>Mercado 1.er trimestre | 2026.02.01 - 2026.03.31 | Borondatezko epearen azken eguna<br>Último día del periodo voluntario |
| Azoka 2. hiruhilekoa<br>Mercado 2. trimestre   | 2026.04.01 - 2026.05.31 | Borondatezko epearen azken eguna<br>Último día del periodo voluntario |
| Azoka 3. hiruhilekoa<br>Mercado 3.er trimestre | 2026.07.01 - 2026.08.31 | Borondatezko epearen azken eguna<br>Último día del periodo voluntario |
| Azoka 4. hiruhilekoa<br>Mercado 4. trimestre   | 2026.10.01 - 2026.11.30 | Borondatezko epearen azken eguna<br>Último día del periodo voluntario |

## SEI HILABETERIK BEHIN ORDAINDU BEHARREKO TASAK • TRIBUTOS DE PERIODICIDAD SEMESTRAL

|                                                              |                         |                                                                       |
|--------------------------------------------------------------|-------------------------|-----------------------------------------------------------------------|
| Zabor-bilketa 1. ordainketa<br>Recogida de basuras 1.er pago | 2026.03.01 - 2026.04.30 | Borondatezko epearen azken eguna<br>Último día del periodo voluntario |
| Zabor-bilketa 2. ordainketa<br>Recogida de basuras 2. pago   | 2026.09.01 - 2026.10.31 | Borondatezko epearen azken eguna<br>Último día del periodo voluntario |

## HILABETERO ORDAINDU BEHARREKO TASAK

|               |                                                                                                                                                    |
|---------------|----------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|
| Musika Eskola | Hil bakoitzaren 24. egunetik hilaren azken egunera arte (irailtik ekainera)<br>Entre el día 24 y el último día de cada mes (de septiembre a junio) |
| Euskaltegi    | Hil bakoitzaren 1 egunetik 5.era bitartean (azarotik ekainera)<br>Entre los días 1 y 5 de cada mes (de noviembre a junio)                          |

Eguberri hauetan,  
eskerrik beroenak  
beasaingar guztiei  
urtean zehar egindako  
ahaleginagatik eta  
elkarlanagatik. Familia,  
lagun eta herri giroak  
berotasuna eta poza ekar  
ditzala, eta urte berriak  
osasuna, bakea eta  
proiektu berriak.

En estas fechas  
agradecemos a todos y  
todas las beasaingarras  
su esfuerzo y colaboración  
a lo largo del año. Que la  
Navidad traiga cercanía  
y alegría, y el Año Nuevo  
salud, paz y nuevos  
proyectos.

Zorionak eta urte berri on!  
¡Felices fiestas y feliz año nuevo!

